

Telmo Munduate Goikoetxea

B maila • 1 saria

Telmo Munduate nauzue. San Benito Ikastolan dabilen ikasle ataundarra. Neure burua eguneroan entzun ohi ditugun istorioak eratzten dituen horietakoa jotzen dut, ingurunea begiratu eta hura hitz bilakatu. Ametsak hitz. Hitzak amets.

Mercedesen historia kontatzera ausartu naiz oraingoan, errealitate zabal baten adierazgarri eta bakardade ikusezinaren islada den hori. Ingurua erreparatu eta sentitu. Lagundu. Inor ez dadin aurrerantzean ikusgaitz izan.



MERCEDES

“Inor ez dadin aurrerantzean ikusgaitz izan”

Zahar bihurtu naute. Izatearen eta bihurtzearen paralelismoaren artean dagoen zirrikitia omen naiz. Piramide ez den piramide horren garaile. Zahartze inposatuaren biktima. Baina karneteko digituek zaharra naizela badiote, hala naiz. “Ongi etorri” jartzen du letraz letra itzaltzen doan kartel gorriak. Eta bertara noa, arima inuzente baten gisa zinemako azken eserlekua hartzera. Off-ean entzuten den bozgorailuak filma hastera doala esan berri du. Gure filma.

UDABERRIA

Bakioko pasealekuan aurkitzen naiz jubilatuen egunpasako azken minutuak disfrutatzen, esku artean dudan lore honen ostoak zure izenarekin igurtzen. Inguruko emakume guztiok aztoratu gaituen Vespan pasa den “morrosko” beltzaran horrek gure egun haiek gogorarazi dizkit. Nire ilehoria ezpain kolorearekin bat datorren zapi gorriaz bilduta, eta aurrean zu, nere eskuekin zure gerria irmoki helduta motorreko abiada biziak eta haizearen indarrak itsasertzeko amildegitik at egan eramango ginduela amestuz.

Gaur ere gureak izatea nahiko nituzkeen egun haiek etorri zaizkit memoriara.

Joste-eskola ondorengo udaberri arrats hartan ezagutu zintudan Clark Gable baziña bezala traje gris ilun harekin atonduta eta begiratzean egin zenidan irrifarras ni erabat liluraruta. Eta orduz gero hogeita batgarren udaberrian oparitu zenidan eraztuna eskuan oraindik testigu. Zure eta nere etorkizuna sinbolizatuko zuen eraztuna. Etorkizunaz luze hitzegiten genituen arrats loretsu haiek, arrasto bukaezin bat gida bagenu bezala eta inoiz amaierarik izango ez zuela pentsatuz. Egunen batean zure bi hatzek eta nere biek bihotzerdi bana irudikatuz oso bat bera margotuko genuela deriroz. Ni zure Ingrid Bergman eta zu nire Humphrey Bogart, eta biontzat Casablanca. Itun hori egingo genuen. Gure Hoolywood partikularra eraiki. Biok pelikularen aktore-aktorea nagusi, baita urteroko Oscar sarien garaile.

Faltan botatzen zaitudan momenturo abesti horiek entzuten ditut. Iada, nere belaunak hara eta honako bira majikoak egiteko moduan egon ez arren, leihotik sartzen diren eguzki naiz ilargi printzeak lagun, zurekin dantzatzea dut plazer.

Beste bizitzan zure pinpilinpauza izaten jarraituko dut gure hitzarmen infinitua hautsi gabe. Beharbada bion amaiera eta hurrengoaren hasera hobekiago sinkronizatu ahako ditugu hurrengo bizitzan.

Eguzkiak gaurkoz hartu du deskantsu eta gaueko nere izarraren desiro abiatu gara etxeruntz.

UDA

Egunek beraien monotoniazko joan etorrian diarduten bitartean edozein lekutan nekez enkajutzen dugun amona kuadrillatxoa hementxe gera gure arratsaldeko tertulian. Bost edo sei egunaren arabera. Betiko lekuan eta betiko orduan gure mahai borobilean planto eginda. Karta jokoa eta hitz jariora elkarrekin nahasian. Hauxe gure guateke partikularra.

Gaurkoan ere nire lau xoxak hamalau bihurtzeko desiran bertaratu naiz, baina hego haizeak iparretik jotzen duenean kontu onik ez. Gelan sartzera entzuten dut tonura oraindik erabat iritsi gabeko melodia horren burrunba eta nire buruari nora ote natorren galdetu diot erdi brometan. Bertara iristean horiek aurpegi eta ezpain joko korapilotsuak. Ixabelen goizeko mediku bisita, etxekoneko Mariaren biloba Mattinen eskolako nota ezin hobeak eta Goikoetxeko Manuelaren tentsio kolpea eta pirula madarikatuak. Denak batera eta oskestra zuzendariaren arrastorik ez.

Eta astearte izanik, seiretan udaleko asistentaren laguntzaz asteko memoria iarduna. "Nik jakin beharrekoa buruan ondo gordeta diñat" ohikatzen du Juanitak eskutik soltatu nahi ez dituen karte abanikatzen. "Hiri ere ondo etorriko zain tabla de multiplicar errepatatzea". Hau da hau gurea kuadroa.

"A, E, I, O, U", hemen bukatu dugu gure memoriari "on" egingo dion gaurko saioa. Bartzelonako Vall d'Hebron ospitalean diseinatutako metodo berezia eta herrialde nordikoetan ere darabilkiten sistema. Baina banatu berri diguten kafesne honek efektu magikoren bat baduelakoan nago ni. Gu denok ixilarazteko pozima majikoa zalantzarik gabe.

Nire kolkorako barre egin dut. Gaur garaile aterako nintzelakoan Europako hiriburuak errepatatzen jardun dut goizean eta zer tokatuko eta bokal eta kontsonanteak. Demonio, hori jakin izan banu. "Zahartzea gauza triste eta alue den orratio" entzun diot esaten Anttoniri. Baita ostean gu guztion algarak.

Ea gaur gaueko kostelazioko izarrekin zorte gehiago dudana. Erdi-erdikoak eta argitsuenak zurea eta nirea izango direla seguru nago.

UDAZKENA

Gaur zurekin nago. Bankua bi zatitan, beno, hirutan egin dugu. Bi zuretzat eta bat niretzat.

Itsasoa gogoararazten didazu. Nire begiek bizitzaren kolore arrosa ikusten zuten garaiaz. Eta belarriek amaren lo-kantu ahots belusatua entzuten zuten plazerraz. Hurrunean entzuten dut "Loa loa ttunturrun berde, loa loa masusta, aita gurea ... mmmmm ... mmmmm ... mmmmmmm ... loa loa ttunturrun berde, loa loa masusta".

Bat batean neska txiki batekin aurkitu naiz aurrez aurre. Begi urdin berak ditugu. Itsasoaren islada lausotuan bagina bezala ikusten dut. Irrifarre egin eta alde egin du, udazkeneko azken hostoa zuhaitzaren goxotasunetik betirako aldentzen den une hori bezala eta haizearen norantza asmaezinak eraman du. Nik joanarazi dudala uste dut.

Halere zuk hemen darraikizu. Panpiña eskuetan eta ahoan, ahoan eta buruan dabilkizun horrek. Zuretzako nire kutixirik handienak *mattea*. Parkeko egonaldi hauetan zuk bihurtzen dizkidazu orduak minutu eta minutuak segundu. Asteko zure bisitatxoa eta udaleko gizarte zerbitzuetatik etortzen zaidan emakume puertorrikarra zarete nire motor. Etxekoak ezin eta Isabella etorri behar bi egunean behin nire hitz poltsa ustutzerara. Aspaldian Señora gehiago naiz ama baino. Emakume ikusezina gehiago etxepeko Mercedes baino. Amona.

Halere nire ilobatxoaren parekorik ez. Ni nere eguneroko parkean, bankuan, zuhaizpean eta tarteka zu, nork ekarri zaituen arrastorik gabe, aingerutxoa bazina moduan.

Gaurkoan zu gaueko izarrik ederrena.

NEGUA

Hartzailerik ez duen karta bat idazten ari naiz gaurkoan. Bakarrik nago. Bakarrik. Ingurura begiratu eta hiriaren edertasunarekin bat bere malenkolia datorkit begietara, malko soil baten moduan. Eta erortzen ari den malko horretan nire islada ikusten dut. Ez hotsik ezta haizerik. Malkoak irrifarra kendu didanaren susmoa dut. Goizeroko ezpainetakoarekin jartzen nuen irrifarrea. Ile zuriek eta aurpegiko hutsuneek aldendu zutena.

Denbora da nire alboan inor eseri ez dela. Aurretik pasatzen ikusten ditudan horiek, belarriak tapatuta eta eskuetan bizia balute bezala, mundutik at. Edo ni nago at? Norbaitek erreparatzen ote nau? Norbaiten begiradarik lapurtuko ote dut? Aurretik lau korrikalari eta nik bankuan jarraitzen dut. Haurra negarraren indarretik ezin sosegatuz dabilen emakumea aldamenean eta nik bankuan jarraitzen dut. Zerutik usoak eta ni hemen. Xirimiri, lanbro, euri, nahiz txingor eta ni aterpetik kanpo.

Begiak irekitzen ditut eta ezer ez da lehen bezalakoa. Isiltasun burrunbatsuak dena hartu du. Nerea ez den errealitateak berea egin nahi. Isiltasuna eta ni. Harria eta hotza. Ni harri isil eta hotza. Laurok bidelagun. Dena beltz eta zuriz margotuta. Hurrunean dagoen neguko azken eguzkiaren tonu gorria han, hurrunean, infinituan. Zuri-beltzeko pelikula mutua iritsi da bere amaierara.

Pixkanaka dena gelditzen doa. Eskuak hozten. Begirada itzaltzen. Hitzak aldentzen. Izanak ezkutalekua aurkitu du eta izenaren arrasto gordina dago ingurukoen memorian.

Harri bihurtu naiz. Harri bihurtu naute.

Alboan neska gazte ilehori bat eseri da, buruko zinta gorria sorbaldatik behera duelarik. Irrifar egin dit. Irrifar egin diot.

Gaur gaueko gu bion izarrek argiztauko dute Areatzako bankuko emakumea.

*“Mercedes, errealitate zabal baten adierazgarri
eta bakardade ikusezinenaren islada”*